

Euskadiko GGKE-en Koordinakundean parte hartzen duten pertsonen euskara- maila ezagutzeko inkesta

2023-2024



**EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA**

**COORDINADORA
de ONGD EUSKADI**

Euskadiko GGKE-en Koordinakundean inkesta bat egin nahi izan dugu gure erakundean parte hartzen duten pertsonen euskara-maila ezagutzeko. Batetik, uste eta pertzepzioak alde batera utzita, errealitatearen diagnosi edo argazki bat izan nahi genuen etorkizuneko formakuntza, lan-arlo edota ekintzak




eraginkortasunez planifikatzeko. Inkesta hau 2023-2024an egin dugu AEKren laguntzarekin. Dokumentu honetan galdetegiaren emaitzak jasotzen dira.

Ekimen horrez gain, honako hauek dira euskararen aldeko gure erakundearen konpromisoen erakusle batzuk: Bai Euskarari ziurtagiria hiru ordezkari-tzetan, Euskaraldian parte hartzea, Euskara Plan gure lanaren iparrorratz, eta Euskara Gunea lantaldea azken horren inplementazioan laguntzeko.

Horrekin guztiarekin, batetik, lankidetzaren sektorean euskararen aldeko urratsak ematen jarraitu nahi dugu, eta bestetik, Euskadiko GGKE-en Koordinakundean euskararen normalizazioan aurrera egin.

1. Euskara agiriak




Kide gehienek C1 maila egiazta-agiria edo baliokidea badute (31). Kopuru horri C2 (3) eta B2 mailadunak (10) gehitzen bazaizkio, galdetutakoen %69k erabiltzaile aurreratuaren atalasea gainditzen du.

Inolako mailarik egiaztatu ez dutenen artean, bostek ez dakite ezer ala ia ezer; eta gainontzekoek B1etik gorakoak dira. Beraz, gutxi gorabehera, erabiltzaile aurreratuaren atalasea gainditzen ez dutenetatik, erdiak oso gutxi daki eta beste erdiak erabiltzaile independenteak dira.


La mayoría de sus miembros tienen certificado de nivel C1 o equivalente (31). Si a esta cifra se suman las de nivel C2 (3) y B2 (10), el 69% de los encuestados supera el umbral de usuario avanzado.

Entre los que no han acreditado ningún nivel, cinco no saben nada o casi nada; y los demás superan la B1. De manera que, aproximadamente, de los que no superan el umbral de usuario avanzado, la mitad sabe muy poco y la otra mitad son usuarios independientes.




2. Idatziko eta ahozko ulermena:

"Zuen elkartera telefonoz, zuzenean edo idatziz jo duen pertsona batek zer nahi duen"




Elkarteko kideek euskaraz zerbait esaten edo idazten badizute elkarteko jardueraz edo ohiko gauzei buruz?




Hedabideetan edo sare sozialetan zuen intereseko gauzak euskaraz agertzen direnean: artikuluak, albisteak, bideoak, dokumentalak...



Eta bileretan hariari jarraitu ahal diozu euskaraz egiten bada, edo dokumentazioa euskaraz ematen bada?



Ekitaldi publikoetan: hitzaldi, aurkezpen, prentsaurreko, omenaldi, mahai-inguruak...?



Ulermenaren inguruko datuetan antzematen da erantzun duten gehienek , %90 inguru, gehiena, ia guztia ala guztia ulertzen duela; bai elkartekideekin bai kanpokoekin komunikatzen denean.


En los datos referidos a la comprensión, se observa que la mayoría de las personas que responden, en torno al 90%, entienden la mayoría, casi todo o todo, tanto cuando se comunica con sus asociados como con los externos.

3. Ahozko ekoizpena

Elkarteko kideekin edo lagunekin solasaldi informal batean.



Elkarteko lanak euskaraz egiten beste kideren batekin.



Bileretan, jende asko biltzen duten jardueretan, prestakuntza-saioetan...



Ekitaldi publikoetan edo jendaurrean...




Ahozko ekoizpenari dagokionez, aitzitik, arazorik gabe ala ia arazorik gabe arituko liratekeenak gutxiago dira; gutxi gorabehera %60. Gainontzekoek, aldez aurretik prestatuz gero, esaldi sinpleak egiteko ala ezer ere ez ekoizteko gaitasuna izango lukete.

En cuanto a la expresión oral, por el contrario, los que se experarían sin problemas o casi sin ellos son menos, aproximadamente el 60%. Los demás, previa preparación, tendrían la capacidad de hacer frases sencillas o no expresar nada.

4. **Idatzizko ekoizpena**

Mezu edo ohar laburrak: Whatsapp-en estilokoak, post-itak, zerrendak, mezu elektronikoko laburrak, postalak...




Kartelak ("12:00etan kontzentrazioa"), abisuak ("oporretan gaude"), ohar laburrak...




Posta elektronikoko mezuetan informazioa, eskaerak, azalpenak, kexak, balorazioak, iritziak...



Sare sozialetako edukiak (sarrerak, interakzioak, erantzunak...) edo testu publikoak (gutunak, artikulua, manifestuak...).



Lanerako testuak eta dokumentu teknikoak: txostenak, memoriak, dirulaguntza-eskaerak, lizitazioak, aurkezpenak, prestakuntzarako eta informaziorako materiala...



Idazteko gaitasunari dagokionez, testuaren konplexotasunaren arabera da galdetutako enautopertzepzioa. Oso teknikoak ez diren testu sinpleekin (mezu edo ohar laburrak eta kartelak) ia hamarretik bederatzik ez du arazorik ekoizterako orduan.

Testu luzeagoen kasuan (mezu elektronikoak, sare sozialetarako testuak eta lanerako testu teknikoak), soilik mezu elektronikoekin mantentzen da pertzepzio hori. Izan ere, ia erdia (%48) ez litzateke ausartuko testu mota horiek euskaraz ekoizten.

En cuanto a la expresión escrita se refiere, la autopercepción de los encuestados depende de la complejidad del texto. Con textos simples poco técnicos (mensajes o notas breves y carteles) casi nueve de cada diez no tienen problemas a la hora de escribir ese tipo de textos.

En el caso de textos más largos (correos electrónicos, textos para redes sociales y textos técnicos de trabajo), esta percepción se mantiene únicamente



con correos electrónicos. De hecho, casi la mitad (48%) no se atrevería a escribir este tipo de textos en euskera.